

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 39/2020 Foru Dekretua, abenduaren 29koa. Onespena ematea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren lan etekinei egin beharreko atxikipenen ehunekoen aldaketari

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak bere XII. tituluko II. kapituluaren konturako ordainketez dihardu. Haiei buruz zehaztasun handiagoz hitz egiten da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Arautegiaren, abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretu bidez onartutakoaren, VII. tituluan.

Arabako Foru Aldundiak 2020ko abenduan onetsitako azken zerga neurrietako bat izan da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arlokoa. Hala, 2020ko eta 2021eko zergaldietan, 12.000 eurotik 14.000 eurora igo da lan etekin gordinak lortzearen aitortzea egiteko betebeharrak ezartzen duen muga. Gainera, zergadunak aitortzea egin behar badu ordaintzaile baten baino gehiagoren 14.000 eta 20.000 euro bitarteko lan etekin gordinak jasotzeagatik, betebeharrak hori betetzetik salbuetsiko da bigarren eta gainerako ordaintzaileengandik jasotako zenbatekoen baturak, zenbatekoaren arabera, urtean 2.000 euro gainditzen ez dituen kasuetan.

Arau aldaketa horrek eskatzen du lan pertsonalaren etekinei aplikatu beharreko atxikipenen ehunekoen taula egokitzea 2021erako, ekitaldi horretan aitortzeko betebeharrak ezartzen duten muga berrietara doitu daitezen.

Ondorioz, foru dekretu honen helburu nagusia da onestea lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen taula berri bat pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren lan etekinen gainean.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen horrekin bete nahi den beharri erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen honen bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da nazioko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 129. artikuluan arautzen baitu.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua hiru hiru paragrafoan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da nahitaezkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia aldatzea

2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean sortuko ditu ondorioekin, aldatzen da abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak onetsitako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegiaren 84. artikuluko 1. apartatua, eta honela geratzen da:

1. Atxikipenen ehunekoaren taula orokorra

URTEKO ETEKINAK, ZENBATEKOA (€)		ONDORENGO KOPURUA						
ZENBATETIK	ZENBATERA	0	1	2	3	4	5	GEHIAGO
0,01	14.000,00	0	0	0	0	0	0	0
14.000,01	14.690,00	5	3	0	0	0	0	0
14.690,01	15.420,00	6	4	2	0	0	0	0
15.420,01	16.310,00	7	5	3	0	0	0	0
16.310,01	17.540,00	8	6	4	0	0	0	0
17.540,01	18.970,00	9	7	5	2	0	0	0
18.970,01	20.500,00	10	8	7	3	0	0	0
20.500,01	21.840,00	11	10	8	5	1	0	0
21.840,01	23.340,00	12	11	9	6	3	0	0
23.340,01	25.080,00	13	12	10	8	4	0	0
25.080,01	27.250,00	14	13	11	9	6	2	0
27.250,01	29.790,00	15	14	13	10	8	4	0
29.790,01	32.880,00	16	15	14	12	9	6	0
32.880,01	37.070,00	17	16	15	13	11	8	0
37.070,01	40.210,00	18	17	16	15	13	10	3
40.210,01	43.320,00	19	18	17	16	14	12	5
43.320,01	46.760,00	20	19	18	17	15	13	7
46.760,01	50.350,00	21	20	20	18	17	15	9
50.350,01	54.520,00	22	21	21	19	18	16	11
54.520,01	57.900,00	23	22	22	21	19	18	12
57.900,01	61.740,00	24	23	23	22	21	19	14
61.740,01	66.140,00	25	25	24	23	22	20	16
66.140,01	71.180,00	26	26	25	24	23	22	17
71.180,01	76.720,00	27	27	26	25	24	23	19
76.720,01	81.370,00	28	28	27	26	25	24	20
81.370,01	86.760,00	29	29	28	27	27	25	22
86.760,01	92.930,00	30	30	29	29	28	27	23
92.930,01	100.050,00	31	31	30	30	29	28	25
100.050,01	107.900,00	32	32	31	31	30	29	26
107.900,01	116.860,00	33	33	32	32	31	30	28
116.860,01	127.460,00	34	34	33	33	32	32	29
127.460,01	139.130,00	35	35	34	34	33	33	31
139.130,01	152.870,00	36	36	36	35	35	34	32
152.870,01	168.970,00	37	37	37	36	36	35	33
168.970,01	188.840,00	38	38	38	37	37	36	35
188.840,01	209.480,00	39	39	39	38	38	37	36
209.480,01	Hortik gora	40	40	40	39	39	39	37

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru dekretu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, bertako artikuluko bakarrean ezarritako ondorioekin.

Bigarrena. Gaikuntza.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 29a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA